

Antzasti eta Errementari museoetara bisitak izango dira hileon

12. orrialdea

Amaia Aldai txapelkunorde Hiru Hiriburuak Txapelketan

Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek ezin izan eben finaleko partidua irabazi. Olatz Arrizabalaga eta Andrea Capellan nagusitu jakien 15-22 Donostiako Atano III pelotalekuan. Partidua gogorra bezain ederra izan zan eta lau pelotariak maila ona erakutsi eben. **10. orrialdea**



Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma Artean izango dira

13. orrialdea

Onditz Iturbe da gure txapelduna!

Irabazlearengandik hamasei segundotara geratu zan Igorrekoa, lasterketa bikaina egin ostean, garaipen saboreko bigarren postua lortuz.

Gorbeia Suzien Skymasters lasterketea Noemie Vachon frantziarrak irabazi eban, bigarren Onditz Iturbek egin eban eta Lindsay Websterrek osotu eban podiuma. Gizonezkoetan, Nico Molina izan zan irabazlea. Gorbeia Suzien Skyracen Alain Santamariak eta Andrea Garayk jantzi ebezan txapelak eta 21 kilometrokoan, Ibai Larreak eta Laia Montoyak. **11. orrialdea**



Argazkia: Zazu Fotografia.

LEMOA

Karabie Gaztetxearen urteurrena ospatuko dabe jai bategaz

Hilaren 29an izango da eguerditik gauera. Txupina 12:00etan botako dabe jaiari hasikerea emoteko eta ostean, barriketaldia, poteo musikatua, bazkaria, "olinpiadak" eta 23:00etatik aurrera, Arratians eta Very Txarrak taldeen kontzertuak egongo dira. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Joserra Undagoitia eta Iker Urtiagari alkarrizketak

Alkarrizketa bi dakarguz erdiko orrialdeetara. Perretxikoetan aditua dan Joserra Undagoitia eta Dimako magia astean bere trukuakaz jentea buruari hazka egiten itxi eban Iker Urtiagari, hain zuzen be. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Ilgoran Jabekuntza Eskoleak ikasturteko egitaraua aurkeztu dau

Hamar tailer edo ikastarok eta zahartzaro feministearen gaineko hausnarketarako saio batek osotuten dabe 2022-2023 ikasturteko eskaintzea.

Hilaren bigarren hamabostaldi honetan, ikastaro bi hasiko dira, *Perretxikoak ezetu, batu eta jateko prestatu* hilaren 20an eta *Pipi Kaltzaluzeen tribua*, 26an, hain zuzen be. Sei saio ditu ikastaro bakotzak eta eskolak Lemoako Kulturgunean eta Igorreko Kultur Etxean izango dira hurrengo. **7. orrialdea**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] · 946 317 215 · garena@garena.restaurant
[garena.restaurant](https://www.facebook.com/garena.restaurant)

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

GOGOAN DUT

"Nire bizitza osatzen dabe bizitza guztiek: poetaren bizitzek" idatzi eban Pablo Nerudak bizi izan zala aitortu ebanean (Seix Barral, 1974). Eta zer da liburu hau, memoria ez bada, hari sentikor eta ikusezin bakte airean justu-justu eutsia?

Ez dakit, egia esan, poesia ete dan *Gogoan dut*, baina halan begitandu jata niri, halakotzat dot irakurri, eta gozatu be bai irakurraldi bakar baten. Azertu eta akats guztiakaz, 80 eta 90eko hamarkada gatxok kurutzatu genduzanon lorratzen liburua da: "Gogoan dut Christina Rosenvinge", edo "Gogoan dut zenbat polizia, bazter guztietan".

Gu izan ginan Ez Dok Amairuren eta Pott-en hilotzen pean loratzeko puntuan egon zan promesa herabea, eta aikoan, oin

memoriak idazten hasi gara: "Gogoan dut Swing taberna", "Gogoan dut pasta gordinik jaten nuela", "Gogoan dut ezagutu zintudanean beste batekin zenbiltzala". Oroitzapen batzuk unibersalak dira. Beste batzuk gureak bakarrik. Aritz Galarragak elegantziaren eta patetismoaren arteko tonu eder egokia emon deutso bere gogoratzeko ariketeari, eta naturaltasunez egin deutso aurre etorkizunaren hutsuneari berari: "Gogoan dut dagoeneko ez naizena". Liburu hau da malenkonía bako *saudade* bat, gurzur-aitortze bat. Era horretan, letania honetako "gogoan dut" baktxa autonomoa da eta oihartzun desbardina egin leike gutako baktxagan. Oroitzapen inozenteena izan leiteke denporearen puruz sakonena, eta

gauza inoz sakonek pisua galdu leikie. Maitasun errekaduak dagoz hiru berbakoak, eta munduak dagoz hiru berbatan ebatziak. Aritz Galarragak badaki bere buruarena barre egiten eta barre eginarazoten bihotza negarrez dan artean. Angeluko BAB2-ko ate zuriak, Itoizko rotaxen tximista-txinpartak, Dogma 95... urteak ziran ez nintzala gogoratzaren Dogmaren ikaspenez, trukaje eta filtroak galarazota daukiezala... Eta hain zuzen trukaje eta filtro guztiak erabiliz idatzia dago liburu hau: distantziaren filtroa, ironiarena, elipsiarena... danak manejetan ditu bikain Aritz Galarragak egia esateko, bizi izan genduanegian egiazat hartu genduan ha egia eder idealizau ha esateko barriro.

Igor Estankona



Aritz Galarraga

Gogoan dut

Pamiela, 2021

144 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 24tik 30era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 31tik zemendiaren 6ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saillburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era orduro.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa, Ixone Arana eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zurtz itxi gaitue

Zemendiaren amaieran euri-jasa gogor batek Euskal Herria hankaz gora itxi eban; uriolak, lur-jausiak, haize bolada gogorak... beste leku askotan lez Diman be lur-jausi bortitzak izan ziran eta horrek gure inguruko errepideak hondatu ebazan. Besteak beste; Arostegietako 25, 26, 29 eta 30 etxeetara doan bidea, orduan hondatu zan eta geroztik ezin geintekiz gure etxeetara seguru ailegau, horrek dakarkuzan oztopo guztiakaz.

Kalteak gure lurretatik pasetan ez dan eta inork jagoten ez dauan errekasto batek egin dauz, izandako ur-jausiak, gure lurretan ez dan, euri-urak batzean ebazan kutxatila guztiz tapau eban-eta.

Hiru hilabete daroaguz erakunde desbardinei (URA, Udala...) erantzukizunak eskatuten, baina ez dau inok ezelango ardurarik hartu eta horregaitik auzotarrok haserre eta minduta gagoz.

Lehenengo, URA Agentziara joan ginan, bertako errekak eta errekastoak honen ardurapean ei dagozta. Halanda be, eurei konponketa ez jagokiela esan euskuen, hau da kutxatilearen titularra dala haren huste-ahalmena konserbatzearen arduraduna. Seguruetara be jo genduan baina zonaldea zona katastrofiko ei zanez, euren erantzukizuna ez zala adierazo euskuen.

Azkenik, Udalera jo genduan eta bidea partikularra danez, bertako

lau auzotarrena, konponketea euren ardurea ez zala esan euskuen. Gainera, Udaleko inongo fitxategitan ez dala ageri katastroan agertuten dan azuzo-bide hori, eta errekastoa pasetan dan terrenoaren jaubetzea be ez eben onartuten.

Asko ekin ondoren abogadu bat hartzeako esan euskuen.

Honeek dira erakundeek emon behar deuskuezan erantzuna eta babesa? Tristeia eta tamalgarria benetan.

Norberaren jaubetzakoa izanda be, holango egoeretan erakundeek euren erantzukizuna daukiela pentsetan dogu, egoera atmosferiko baten erruz etorri jaku, etorri jakuna eta.

Pandemia denporan partikularrei laguntza emon jakien, eta ez deritxagu txarto, eta ondo dakiugu be, holango ezustekoetarako dirua dauala be. Akaso, Obako lur-jausiak izan ziran Udalak ez eban ardurea bere gain hartu? Eta holan egin behar dauala uste dogu, zelan ez!

Guk ez dogu gura gure bidea lehen baino hobeto ixterik, gure etxeetara heldu gura dogu bakarrik. Baina ikusten dogunez erakundeek zurtz itxi gaitue.

Auzoko etxeei emon deuskuen laguntzeagaitik esker ona adierazo gura deutsegu, euren aparkalekuak borondate onenagaz itxi deuskuez eta.

YOLANDA PALACIOS, AUZOKIDEEN IZENEAN

ERETXIA

Domu Santu

Domu Santu eta Arimena, egun handiak izan dira gurean hildako guztiak gogoratzeko, ortu santuak lorez apainduz eta sinismendunok euren alde otoitz eginez. Gaur egun oster, Domu Santu bezperan, zabaldu dan jaia, Gau Baltza edo *Halloween* da. Historia apur bat eginez, zelden garaiko jai hau, geroagora Irlanda eta eskoziarrak eroan eben Ameriketara eta *Halloween* < (*all+hallows+eve* = santu guztien errastia) izenez zabaldu da munduan, komertzializaturik.

Euskal Herrian be ospatzen zala esaten da baina ez gaurko moduan. Tipikoa da, besteak beste, kalabazea hustu, barruan kandela argia izetu eta bildurra sartzearena. Jakina, hau, egitekotan baserrietan egingo zan, urietan ez hainbeste.

Aspaldiko partez, mitologian hasita, jai eta ospakizun paganotara joteko joerea dago eta aspakizun moderno ugari ikusten da batean bestean. Euskaldunok, errespetu handia izan deusagu heriotzeari eta fededunok handiagoa. Horregaitik emon deusagu emon deusagun zentzua Domu Santu eta Arimen egunei. Ospakizun hau, Eleiza doktrineari lotuta daukagu. Eleiza zaharrea, 303an, Dioklezianoren persekuzio garaian, martiri guztien eguna ospatzen zan eta geroagora, Gregorio III. Aita Santuak (731-741), zemendiaren 1ean jarri eban Domusantu eguna, Vatikanon kapilla bat zabalduz.

Arimak dirala-ta, hainbat esaunda aurkitzen dira Gorbeialdean. Gaez arimak agertzen ei ziran alaurika "gaua gaezkoentzat eta eguna egunezkoentzat" deia-darka. Arimak ei ziran, munduan zeozer bete barik itxi, eta zeruan sartu ezinik, harik eta euren hutsegiteak senide edo lagunentzatek bete arte. Behin bete ezkerro, agurtzerakoan, arimeari eskua zapiatz inguratuta emoten jakon eta arimeak bere atzamarraren erre-markak ixten ei ebazala kon-



JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Euskal Filologian doktorea
Etnolinguistikan

tetan da esaundetan. Sinistu zein ez, zaindu daiguzan euskaldun egiten gaituen euskera eta euskal ohiturak, euskaldun izaten jarraitu daigun etorkizunean.

Aitatu dodan lez, gaueko arimen mito edo esaunda ugari jaso dot Gorbeialdean eta eurretariako bat, Abade Txakurak edo Mateo Txisturen esaunda. Aikomen.

"Herri baten abade ehiztari ospetsu bat egoan. Domeka baten, hartu eskopetea eta erbitxurrok eta erbitara joan zan. Ibilik ibilita, ez eban erbien gerizarik be barruntau eta txakurroi gedar-hotsean joan zan mezea emoten. Meza erdian dagoala, txakur ahausiak entzun ebazan, erbiren bat jaso ebelaren seinale. Birritan pentsau barik, itxi mezea emoteari, hartu eskopetea eta erbion atzetik joan zan, sotana magal-hotsean eta txakurak i-au, i-au, i-au!-ka. Abade ehiztari hori kondenau egin ei zan eta zeruan ezin sartu. Horregaitik, eguraldi sano txarra egiten dauanean, abade ehiztari horren txakurren alauri-ahausiak entzuten ei dira".

Eta, zer gertatu zan gerora? Ba, aiko zeberioztar batek kontau eustana. "Gure herrietan Aste Santu aurretxuan ejerzizioak egiten ziran, konfesau eta Pazkoazkoaz beteteko. Misiolariagaz konfesatearren, gizon batek esan eban berekitan: "Gaur gauean koruan lo egingo joat, bihar lehenengoa izateko". Gau erdian, eleizako atea zabaldu ziran eta argiak izetu. Ene! Abade bat. Sakristiara joan, jantzi meza-erropak, altarara etorri, begiratu ingurura eta barriri sakristiara, eta azkenik kanpora. Misiolariari kontau eutsan eta hurrengo gauean, misiolaria eta biak geratu ziran koruan. Ene! barriri ha abadea. Altarara etorri zanean, misiolariak mezea eraso eutsan eta amaitu ebanean abade ehiztariak eskertu esanez: "urteak eta urteak garrenean, meza osoa emon dot akolitoagaz eta oin sartu naiteke zeruan. Bota bostekoa!".

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XI). Kale berbakunea sustatu guran

Erabili:

Erabili aditzagaz adibide batzuk egingo doguz.

- Erabili dok jake barria ala?
- Oindino etxok egin erabilteko moduko egunik.
- Arrazoa dekok oindino etxok erabilteko besteko hotzik egin.
- Mikelek antzeko jake bat jarabik, badakik?
- A bai? Etxoat jakin jarabikenik.
- Bueno hi egongo gozak! Prisaz ñabik eta.

- Erabili dozu jake barria ala?
- Oindino ez dau egin erabilteko moduko egunik.
- Arrazoa daukazu oindino ez dau erabilteko besteko hotzik egin.
- Mikelek antzeko jake bat darabil, badakizu?
- A bai? Ez dot jakin darabilenik.
- Bueno, egongo gara! Prisaz nabil eta.

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Saihesbideak eta konponbideak

Saso bateko artistentzat, giza gorputzetik irudikatze alalik gaxena sabela zan. Ertaroaz nabil, ezagutza moduak topeka egin eben sasoia. Batetik, berreskuratutako jakituria grekolatinoaren eraginez, anatomiaren ezagutzak bat egin eban herri jakinduriagaz, sabelari jagokonez behintzat: umeak zilbor-hestegaz jaioten dira, eta horrek betiko errastua ixten dau gugan, hau da, zila.

Bestetik, Eleiza Katolikoaren dogma egoan: Adan Jaungoikoaren amasetik sortu zan; Eva, ostera, Adanen saihets batetik. Halan bada, ez eukien zilen errasturik. Bide naturaletik jaio ez ziran gizakiak dirala esan geinke.

Artistak, ba, dilema baten aurrean topau ziran: zelan marraztu bi horreen sabela? Paradisuan egozan lez, biluzik agertutea ezinbestekoa izanda, zilbegia bai ala ez planteetea ez zan erraz erantzuteko kontua; izan be, autoridade moralaren zigor meha-

txua bildurtutekoa zan.

Artista anonimo batek erdibideko konponbidea topau eban: lehen bikotea natura aberatsaren erdian bizi zanez, erraza zan zugaxka baten inguruan ipini, eta, halan, gorputz atal problematikoa erramakaz ostondutea. Hainbat urtetan erabili zan teknika hau, harik eta Errenazimintuan zientziaren ikuspegia nagusitu eta Michelangelok Cappella Sistinan argi itxi ebanera arte.

Gaur egun, zientziaren eta dogmaren arteko beste "topeka" egoera batean gagoz. Dogma barriaren defendatzailea ez da Eleiza Katolikoa; oingoan, Sistema Kapitalistea dogu. Eleizeak esaten euskun, unibersoa zazpi egunean sortu zala; kapitalismoak, ostera, planeta mugatu baten hazkunde amaiezina emon leikela.

Dogmaren aurka, zientziak dino azken ehun urteko martxa konsumisteagaz segidutea ezinezkoa dala. Energia bai eukiko dogu, eguzkiak hor segiduko daualako hainbat milioi urtean, baia indar horretaz jaubetuteko behar doguzan materialak muga daukie (eta ez litio, tantalio edo holango arraroak bakarrik; harrea bera be eskastuten hasi da hainbat lekutan).

Paradigma biok alkartuteko hainbat saiakera ikusi doguz Hazkunde Jasangarria izenpean. Noz arte funtzionauko dau oingoan saihesbideak?

ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS




BEGI TXINDORRA

Dana dago literaturan. Iragana, oraina eta etorkizuna. Mundua, bizitza, besteak eta norbere burua ulertzeko kakoak emoten dauz. Literaturan dago egia. Eta labirinto horretan, norberaren momentu bakotxari egokitzen jakona topetan dau. Liburuak desbardin irakurten doguz, mezu desbardinak jaso eta batentzat aurkikuntza bat dana, errealitatea argitzen dauan egi izpia, beste batek ikusi be ez dau egiten. Komunikazinoa magia bat da, ezin dana jakin noz gertatuko dan.

Gainbehera dator dana, Chinua Acheberen nobelan lez. Eta ez dago esperantzarik, ez dagoalako epikarik. Gizarte otzana, mantsoa, obediente daukagu, onartu ezin dana onartuten dauana...

Eta agintariekin amildegira garoetz.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoite-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikerjatz Zerbitzuak 900
R.P.S. 21/06

ARRATIA

Errota Fundazioak ETEen errentagarritasuna hobetuteko Hazinnovan parte hartzeako laguntasuna eskaintzen dau

Hazinnova programan proiektuak aurkeztuteko deialdia zabalik dago abenduaren 1era arte.

Erredakzioa

Errota Fundazioak enpresa txiki eta ertainei (ETE) lagunduten deute SPRI eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskutik urri bigarren eta zementian, Hazinnova 2021 deialdiaren bitartez, enpresa horreek mikro-barrikuntzako 292 proiektu garatu ditue hainbat arlotan, lehiakorragoak izateko.

Bizkaiko 111 enpresak (135 proiektu), Gipuzkoako 63k (89 proiektu) eta Arabako 35ek parte hartu dabe Hazinnova programaren 2021eko edizinoan.

Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziaren, SPRI Taldearen eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskutik urri bigarren eta zementian, Hazinnova 2021 deialdiaren bitartez, enpresa horreek mikro-barrikuntzako 292 proiektu garatu ditue hainbat arlotan, lehiakorragoak izateko.

Bizkaiko 111 enpresak (135 proiektu), Gipuzkoako 63k (89 proiektu) eta Arabako 35ek parte hartu dabe Hazinnova programaren 2021eko edizinoan.



Zure ETEaren errentagarritasuna hobetu nahi duzue? Beste bezero batzuk aurkitu? Beste produktu edo zerbitzu batzuk diseinatu?

Laguntza hau 5 langile edo gehiago dituzten ETEei zuzenduta dago, eta aholkularitzako 50 ordu eskaintzen ditu, orain, 3 hilabetez eskaintzen.

SOC ETEri baino gehiagori lagundu diegu ekonomia- eta finantza-erregimen bati edo erregimen logistika, barne-administrazio, pertsona, bezero, marko berri edo produktuen inguruko premia bati arantzuz, Hazinnovaren bidez. Gu, ERROTA FUNDAZIOA, zure konfiantzarako Hazinnova agentzia gara, eta hasiera-hasieratik lagunduko dizugu proiektu osatu, proiektu amaitu, arazo eta eragoz izango da.

Jarri gurekin harremanetan 688 766 427 zenbakian bidez edo bidali mezu elektronikoa errota@errota.eus helbide elektronikora

- Zure enpresaren ERRENTAGARRITASUNA hobetu.
- Prozesuaren EFIZIENTZIA hobetu.
- GASTUAK eta erregimen-ERRENTA murriztu.
- Enpresako pertsonak MOTIBATU.
- MERKATU KUOTAK lortu.
- Bezero-SEGURITATEA bermatu.
- Zure JARAITZA INDUSTRIALA hobetu.
- Produktu edo zerbitzu berriak DISEINATU.
- BEHARRIZAN TEKNOLOGIKOAK zehaztu.

Enpresa barrizaien akreditazioak

Barrikuntza ez teknologikoaren gaineko Hazinnova programaren bigarren edizinoan parte hartu daben 209 ETEek enpresa barrizaien ziurtagiria hartuko dabe,

ARTEA

Herritarrek Arteako 2023ko aurrekontuetarako ekarpenak egin dekiez hilaren 21era arte

Erredakzioa

Arteako Udal kontuen zirriborroa aurkeztu eban Udalak urri bigarrenaren 13an, herritarrek egindako batzar baten eta euren ekarpenak be jaso. Zirriborroa etxeetara be bialdu da eta irakurri ondoren herritarrek ekarpenak egin dekiez hilaren 21era arte, posta elektronikoz, telefonoz edo udaletxean bertan.

Zirriborroa herritarrei heldu arazo aurretik, "Ogasun Batzordean, alderdi politikoei azaldu eta banandu jakien" azaldu deute BEGITURI Gorka Beitia zinegotziak. Alderdiek zementiaren 2ra arte eukiko dabe euren ekarpenak egiteko eta "zementiaren 9an ekarpen guztiak aztertu eta bozkatu ahal izango dira". Zementiaren 11n, bozkatuko dira 2023ko Aurrekontuak Osoko Bilkuran.

LEMOA

Arratians eta Very Txarrak-en kontzertuak egongo dira Karabie Gaztetxearen XXIII. urteurrena ospatuteko

Hilaren 29an, eguerditik gauera, Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladeak, 1999an sortutako Karabie Gaztetxearen urteurrena ospatuteko jaia antolatu dau. Berbaldiak, bazkariak eta kontzertuek osotuten dabe, besteak beste, egitaraua.

Erredakzioa

Jaiari hasikerea emoteko txupina botako dabe 12:00etan. Ostean, 12:30ean, Gazte Asanbladako kide izandako bik, sortzaileetako batek eta belaunaldi barrietako beste batek, *Izan zirelako gara* berbaldia emongo dabe, Gazte Asanbladearen eta gaztetxearen jatorria eta genealogia balioan ipinteko. Ondoren, 13:30ean, jai giroan, musikeak lagundutako potea egingo dabe herritik. Bazkaria 15:00etan izango da Gaztetxe ondoan, eta eguraldi txarra egiten badau eskoletako aterpean.

Bazkalostean "olinpiadak" egingo ditue herrian, eta amaitzeko, 23:00etan hasita kontzertuak egongo dira. Talde bik joko dabe: Arratians, lehen MG zanak, eta Very Txarrak, Berri Txarrak tributo taldeak hain zuzen be.

Udalaren eraikineri aldatu ziran Gazte Asanbladakoak. Hogeta hiru urte pasau dira eta urte honetan, Lemoako gizarte eragile

aktibo bihurtu da Gaztetxea. Izan be, herriko bizitzaren parte izan da beti eta gizarte mobimentuko herriko talde asko urten dira bertatik.

Autogestinoa eta antolakuntzea

Espazio berezia izan da beti Karabie Gaztetxea, bere sorreratik hasita; 1999an, gazte batzuek harrobian egoan txabola bat hartu ebenetik gaztetxe moduan erabilteko, eta Karabie izena ipini eutsienetik. Urtebete berandua ere egin zan txabolea eta harrezkerotik eskolak izandako



IGORRE

Igorreko gurasoek euskera eskolak doban ditue AEK-ko Kubulu Euskaltegian

Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak, gurasoak euskalduntzeko kanpaina bat abiatu dau, eurentzako AEKn euskerazko eskolak doban dirala gogora arazoten.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren emon dekie izena AEK-ko Kubulu Euskaltegian. Astean bitan izango dira eskolak eta maila eta ordutegi guztiak eskaintzen ditue.

Gurasoentzako debaldeko eskolak ez da gauza barria, urtero izaten dira holan. AEK-ko ikasle

gehienek matrikuletakoan dirua aurreratu behar izaten dabe, hurrengo urtean bueltetan jakiena, 0 mailakoek, gurasoek eta merkatariek izan ezik. Honek hiru taldeonek ez daukie dirurik aurreratu beharrik, debalde daukiez eskolak hasikeratik eta izena emon baino ez dabe egin behar.

Igorreko Euskera Zerbitzuak gu-

rasoak animau gura dauz euskerazko eskolak jasotera.



IGORRE

Arratiako Berbalagun egitasmoak Igorre be hartuko dau aurtengo ikasturtean

Erredakzioa

Euskera ikasten dabizanei eta euskaldunei, Berbalagun egitasmoaren Igorren egingo dan aurkezpenarako konbitea egin deutse AEK-k. Igorreko Lasarte Aretoan izango da, urri bigarrenaren 27an, 18:00etan.

Ekitaldian, Igorreko hainbat sortzaile bideoa erakutsiko da, beste gauza batzuen artean.

Berbalagun egitasmoak euskera ikasleek eta euskaldunek osotutako taldeak sortzean ditu, mintzapraktikak debalde eskainiz. Taldeek eurek ebazten dabe euren ordu-

tegia eta non batu. Hainbat jardueratarako aukerea emoten dau Berbalagunek: mintzataldeak, txangoak, tailerrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, urtekerak eta astegoiempasak, barbarako. Edozein edadetako jentek hartu ahal dau parte Berbalagunen.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Imanol Agirrerren argazkiak eroan dau Udako Argazki Lehiaketako bigarren saria

Erredakzioa

Imanol Agirrek Biarritzeko hondartzan ateratako *Ametsak salto batera* izeneko argazkiarentzat izan da BEGITUREN Udako Argazkien Lehiaketako bigarren saria. Argazkiaren egileak lagun birentzako bazkaria jasoko dau saritzat. Zorionak Imanol!



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldiko herri batzordeak osotuten dabiz

Erredakzioa

Zemendiaran 15tik abenduaren 2ra izango da aurtengo Euskaraldia eta zabalik dago Ahobizi eta Belarriprest moduan parte hartzeako izena emoteko epea, *euskaraldia.eus* webgunean. Aurreko edizinoetan lez, aurten be herri bakotzeko prestaketa lanak herriko batzordeak egingo dauz. Batzordeotan, udal ordezkariak, herritarrek eta gizarte eragileak batzean dira eta guztien artean

ebazten dabe Euskaraldiak herrian izango dauan garapena. Horretarako, herrietako batzordeetan parte hartzeako konbitea egin dabe Euskaraldiaren antolatzaileek.

Daborduko, Arteak, Bediak, Dimak, Lemoak eta Zeanurik badaukie herri batzordea, udal ordezkariak zein herritarrek osotuta. Igorreko Euskara Zerbitzua, jente bila dabil Euskaraldiko herri batzordea osotuteko.



#PraktikatuetaBizi

AURKEZPEN EKITALDIA

Ezagutu Igorreko Berbalagun egitasmoa!

- Euskararen erabilerak kezkatzen zaitu?
- Euskaraz hitz egiteko guneak behar dituzu?
- Euskara ikasten ari zara eta praktikatu nahi duzu?

Zatoz!

URRIAK 27

19:00

Lasarte Aretoan

Igorreko hainbat sortzaile, bideoa eta gehiago!

662 199 033

praktikatu.eus/blog/arratia
arratia.berba@aeek.eus

LEMOA

Proiektu bi aukeratu ditu epaimahaiak memoria historikoa artearen ikuspuntutik landuteko

Oroitzeak dakarren askatasunaz deialdira aurkeztutako proposamenen artean, bi izan dira aukeratutakoak, Mikel Erkiaga Herran eta Iker Vazquez Artecherenak, hain zuzen be.

Erredakzioa

Proposamen bakotxa 800 euro-gaz lagunduko dau Udalak eta hurrengo hilabeteetan garatuko dira. 2023ko urtailean, epaimahaiak irabazle bakarri aukeratu edo biak bateratuko dauz eta honek, 2.500 euroko dirulaguntzea jasoko dau proiektua herrian gauzatzeko. Maiatzean, Memoriaren Astean aurkeztuko da behin-betiko lana.

Saioa Elejabarrieta alkateak, Pablo Rodriguez gizartegintzako teknikariak, Ismael Manterola EHUko Arte Ederretako Fakultadeko dekanok eta Edurne Gonzalez Arte Ederretako Fakultadeko Kultura Hedapeneko dekanordeak osatu dabe hautagaiak aukeratu dituan

epaimahaia. Epaimahaiaren arabera, "aukeratutako proposamenak baloratu dira, hautatutako profilen interesaren arabera, garatuko diran testuinguruagazko loturea kontuan hartuta".

Aitortza justu eta egiazkoa

Lemoako memoria historikoan oinarritutako proiektu artistikoak garatzea da *Oroitzeak dakarren askatasunaz* proiektu artistikoen deialdiaren helburua. 1936ko gerra eta gerraosteko diktaduraren garaia eta gerrearen giza dimensioa abiapuntu hartuta, "orduko andra, gizon eta umeen egoerak eta bizipenak gaurkora ekarteko eta eurei aitortza justu eta egiazkoa egitea", hain zuzen.



ARANTZAZU

Udalak egutegia egiteko lehen argazki lehiaketara abiatu dau

Erredakzioa

Arantzazuko Udalak lehenengoz argazki lehiaketa bat ipini dau martxan hurrengo urteko egutegia egiteko. Parte hartu gura dauanak idezkaritza.arantzazu@bizkaia.org helbidera bialdu behar ditu Arantzazuko paisajea erakusten dabezan argazkiak abenduaren 2a baino lehen. Egutegiaren formatuaren arabera aukeratu edo batzuk, 2023ko udal egutegian argitaratutako. Egutegirako auke-

ratutako argazkien egileentzat sariak egongo dira.



ARRATIA

Hamar ikastaro edo tailer antolatu ditu Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntzako Eskoleak 2022-2023 ikasturterako

Ilgoran Jabekuntza Eskoleak emon dau jakitera antolatuko dituan ikastaro eta tailerrak.

Erredakzioa

Andra etorkinen sareak sortzen Areatzan; Perretxikoak ezetu, batu eta jateko prestatu Lemoan; Pipi Kaltzaluzeen tribua Igorren; Nire gorputza gudu zelai bat da Zeanurin; Plazerra izango da ala ez da izango Artean; Arteterapia Igorren; Sortu zure oihalezko konpresak Diman; Autodefensa feminista Bedian; Zer egin geure pribilegioakaz Arantzazun, eta Generoa pikutara Diman. Gainera, edadeko andra feministek zahartzaro feminista baten gainean hausnartuko dabe Anna Freixas-en *Yo, vieja* liburua- ren lanketeagaz.

Lemoa eta Igorren ikastaroak hasiko dira

Tailer bi hasiko dira oingo hamabostaldian. *Perretxikoak ezetu, batu eta jateko prestatu* eta *Pipi*

Kaltzaluzeen tribua. Lehenengo, urri bigarrenaren 20an hasiko da Lemoako Kulturgunean. Enkarna Delgado eta Marta Marimonen eskutik, sei saio izango ditu, eguenetan, 17:30etik 20:00etara.

Hilaren 26an hasiko da *Pipi Kaltzaluzeen tribua* izeneko ikastaroa. Igorreko Kultur Etxean izango da 18:00etatik 20:00etara, Monica Nuñezen eskutik eta sei saio izango ditu, eguaztenetan.

Ikastaro edo tailerrotan izena emoteko hiru bide dagoz: Webgunearen bidez www.arratia.net helbidean, Arratiako Udalen Mankomunitatean: Elexalde 49, Igorren, eta 94 631 17 17 eta 688 627 393 telefonoetan edo udaletxeetan. Jarduera hasi baino aste bete lehenagora arte emon daiteke izena.

Plaza mugatuak dira eta partaideen zerrenda izen-emote



datoren arabera egingo da. Arratian errolatutako andrekin lehen-tasuna eukiko dabe eta jarduera guztiak doban dira. Irisgarritasuna bermatuko da eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da alde zuretik abisautan.

ZEBERIO

Pump Track pista eta aisialdirako gunea sei orduko jai bategaz inaugurako dira

Erredakzioa

Hilaren 22an, 12:00etan hasita, sei orduko jai bategaz inaugurako dabe Zeberion Telleriko Pump Track pista eta aisialdi gunea. Bizikletak, patineteak, patinak edo skateak martxan ikusteko erakustaldiak egongo dira, umeentzako pistan

ibilteko tailerrak, musika emonaldiak eta janaria saltzean dauan Food Trucka, beste gauza batzuen artean.

Inaugurako daben espazioan, Pump Track pisteaz gainera, Gesalara doan errepidean bestaldean, mahaiak eta kirola egiteko elementuak ipini ditue.



TXIN-TXIMINI

- Tximinien garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknikoa
- Instalazioen erabarriztea eta mantenimentua

Telefona 657 77 94 58
info@txin-tximini.com
TXIN-TXIMINI.COM - Bizkaia

begitu
eus

amorrortu
taberna - jatetxea - ostatua

zz
OSTATUA
638 712 523

Esbiate 1, 48330 LEMOA - Bizkaia
www.alejamientolemoa.com
info@alejamientolemoa.com

JOSERRA UNDAGOITIA

"Perretxikoak jan baino, gurago dodaz ikertu"

Joserra Undagoitia Durangoko Errotari Mikologia Elkarteko kidea da eta 33 urte inguru daroaz perretxiko munduan. Alkartek ikerketak egiten ditu eta milaka perretxiko lehortuta eta datu basean sartuta daukaz. Perretxikoen gaineko Euskal Herriko datu baserik handiena da eta perretxiko barriak, sailkatu bakoak be badagoz tartean.

**Erredakzinoa**

Urte osoan egoten diran arren, udagoiena da perretxiko sasoiaren gurean. Perretxikoek epeltasuna, hezetasuna eta "ezetuten ez doguzan baldintza batzuk" behar dabez urteteko. Aurten, oin arte ez dau apenas euririk egin eta perretxiko askorik ez dago.

Errotari Mikologia alkarteko kide zara, zergaitik?

Ikerketak egiteko taldean ibiltea sano inportantea da. Blog belgiar baten be banago. Frantsesak eta belgiarrak dagoz blog horretan eta horreek asko dakie, nik baino gehiago, eta genero espezifiko batzuetan adituak dira. Baina dana ezin da jakin, ze perretxikoen mundua oso zabala da. Tradizino handia dago Frantzia, Italia, Alemania eta beste herrialde batzuetan. Hamarkada askotako mikologia kultura daukie. Frantziako Mikologia Federazioak 100 urte baino gehiago daukaz.

Hemen ez dago hainbesteko zaletasunik. Unibersidade mailan badagoz aditu batzuk, baina ez hainbeste. Errotari alkartean daukagun maila altua da, sakona, baina ez dago lotuta unibersidadeari. Unibersidadeak bere dinamikak daukaz eta guk gurea. Errotarik esate baterako milaka perretxiko daukaz lehortuta eta datu basean sartuta. Lan makala! Euskal Herriko datu base itzela dauka. Gainera perretxiko asko barriak dira, sailkatu bakoak.

Madeira, Kanaria eta Azoreetara joan, ikerketak egin eta argita-

ratu egiten doguz.

Aurtengoa urte ona da perretxikoetarako?

Euriaren arabera. Oin arte ez dau euririk egin, orduan ez dago perretxikorik. Perretxikoak euria behar dau, eta beste baldintza batzuk, ezezagunak diranak.

Guk ikusten dogun perretxikoa frutuaren modukoa da: esporak, hazia, botateko mizelioaren elementu bat, hain zuzen. Mizelioa deritxana sare baten antzekoa da eta lurpean dago.

Elikatzen diran moduaren arabera hiru mota perretxiko dagoz: saprofitoak, gauza ustelakaz elikatzen diranak; bizkarkari edo parasitoak, eta mikorrizak lurpean, zuzatzen zuztarretara lotuta dagozanak. Honeek zuzatuzak alkartruke moduko bat egiten dabe; mizelioaren bidez, ura emoten deusie zuzatzari, eta zuzatzek onddo mikorrirei azukrea emoten deutsee. Kooperazinoa dago.

Basoentzat perretxikoak sano inportanteak dira; danak, jangarriak edo ez jangarriak.

Basoetan bakarrik ez, arbola landaketetan be badagoz. Batzuk bereziak dira: zelango zuzatz mota, halango perretxikoa; beste batzuk barriz, orokorrak eta koniferoetan zein hostozabaletan egiten dira. Hainbat eta hainbat dagoz urkiari lotuta, urkia dagoan lekuan bakarrik dagozanak. Edo makala dagoan lekuan bakarrik dagozanak. Niskaloak, esate baterako, pagadian edo harestian ez dagoz, pinudian bakarrik, pinua edo izeia dagoan lekuetan; hau da koniferoak dagoan lekuetan. Onddo zuria, barriz, pinudietan,

haresti eta pagadietan dago.

Arratian ze perretxiko klase topau geinkez?

Danerik. Milaka. Baina hemen Euskal Herrian doza bat perretxiko motatik gora ez da jaten. Oso gitxi. Askoz gehiago dira jangarriak baina hor kultura sartzean da tartean. Katalanek askoz mota gehiago jaten ditue. Eta errusiarrek oindino gehiago. Moskura joaten bazara udan, ikusiko dozu jentea kalean perretxikoak saltzean. Guk jaramonik be egiten ez deutsegun perretxikoak. Eta jentek saldu eta erosi egiten ditu. Moskun baso asko dagoz uriburuan bertan, eta jentek perretxikoak batu eta salgai ipinten dauz.

Zuri zeintzuk gustetan jatzuz?

Onddoak eta saltsaperretxikoak. Niskaloak be bai. Asko ez, gogortsuak dira-eta.

Horreetxek eta urretxak, gibelurdinak... dira hemen batu eta jaten doguzanak. Niri askorik ez jataz gustetan, askotan ez dodaz hartzean. Ze gero garbitu eta sukaldatu egin behar dira. Denporea behar da eta txuleta bat edo txitxarro bategaz lehenago egiten da.

Nik perretxiko gitxi hartzean dodaz, perretxikoak ikertu gurago dodaz. Gauza asko dagoz ikertzeko. Sano eremu zabala da.

Perretxikoak bakarrik udagoienean agertzen dira ala urte osoan?

Urte osoan. Udabarrian eta neguan be bai, segun eta zein. Lehorte eta leia dira etsairik handienak, frutua, karpoforo deritxan hori emoteko. Baina bizirik dagoz, etxoten. Baldintza onen zain: epeltasuna, hezetasuna eta ezetuten ez doguzan baldintzak. Baldintza ezezagunak be badagoz eta.

Perretxiko gehiago ala gitxiago agertzeak badauka zerikusirik mizelioaren osasunagaz?

Bai. Mizelioari kalte egiten deutso makinak pasatzeak. Hondeamakinek, trinkotu egiten dabe lurra eta mizelioa ito egiten da. Abonu kimikoek be kalte egiten deusie. Izan be, izaki biziduna da eta izaki bizidun guztion moduan jai, garatu eta hil egiten da.

Eta gaixorik badago ez da loratuko.

Hor gero bakterioen-eta eragina dago. Mundu hori sano konplejua da. Lurrean bakterioak eta birusak dagoz. Mizelioak ingurutik elikagaia era berezian hartzean dau: kanpora botaten ditu gai batzuk, disolbidu eta gero irentsi egiten dauz. Bere inguruan, esaterako, usteltzen dagoan pekorotza edo enbor ustelak... enborrek zelulosa daukie, egurrak zelulosa dauka eta zelulosa katea apurtu egiten dau, glukosa bilakatuz, eta glukosea iruntsiz. Usteltze prozesuetan sano inportanteak dira. Guk ikusten doguzan perretxikoek txapela eta txortena daukie, baina mota eta forma askotako onddoak dagoz; katillu, koral, zarakar eta orratz formakoak, esate baterako.

Susmau dozu desbardintasunik, oin dala, demagun, 20 urte eta oin artean?

Ez. Nahiz eta gaur egun askoz gehiago batzean dan. Oin dala 20 edo 30 urte baino jente gehiago dabil.

Gertatzen dana da urte batzuetan, klimatologiaren arabera, ba gehiago ikusten dirala mota batzuetakoak, eta beste urte ba-

tzuetan beste mota batzuetakoak. Zergaitia ez dakigu. Horretarako urte askotako eta eremu zabaleko (Europa osoan, kasurako) ikerketa egin beharko litzateke. Holakorik egin ez danez, ezin lei ziurtasunez esan desagertze prozesurik dagoanik.

Perretxikoak mikra batzuetatik metro erdira-edo euki ahal dau. Mizelioak kilometroak. AEBn egindako ikerketa baten, eta ez dakit zenbat futbol zelai neurriko mizelioa neurtu zan. Horretarako DNA aztertu zan. Leku baten mizelioaren DNA aztertu eta beste leku baten DNA berbera emoten badau mizelio bera da.

Gaur egun teknika hori garrantzizkoa da taxonomian, hau da, Biologia molekularra, espezieak-eta sailkatzeko. Lehenengotik, zentzumenakaz jasotako ezagarriak aztertzen dira; gero, mikroskopioan esporak eta beste elementu batzuk begiratzen dira eta horren arabera sailkatzen dira. Gaur horreez gainera, Biologia molekularra be erabilten da onddoak sailkatzeko.



MAGIA ARRATIAN

Iker Urtiaga Macho: "Eguneroko gauzakaz be egiten dogu magia"

Diman magia jardunaldiak antolatu ziran urri lehenengoan, Dimagia izenpean. Jardunaldiotan, magia egiten hiru arratiar ikusteko aukerea izan genduan. Iker Urtiaga Machok, Walas magoak, erantzun dauz BEGITUREN galderak.

Erredakzioa

Arratiako magoen ekimena izan zan Dimagia antolatu-tea?

Ez, Arratiako magoak ez ginan antolatzaileak izan. Umeen eskubide eta beharrak jente-artera-tzearen alde lan egiten dauan Titi ta Lolo Dimako alkarteak, Udala-gaz batera, izan zan antolatzailea. Alkarteak artisautza erabilten dau tresna moduan bere helburu eta erreibindikazioak zabalduteko. Alkartekoentzat, magiagaz olgetan ibiltzen diran arratiarrak konbidatutea inportantea zan.

Zelan sortu zan Dimagia?

Udaletxera lehenengoz joan nintzanean, magiaren inguruan zeozer egitea zan planteamentua. Baina heldu ziran COVID-19aren dekretuak eta dana atzeratu egin zan. Gero guk ezezkua emon geuntsan maskareagaz egiteari, egiten bagendu natural eta murrizketa barik izango zan. Aurten egin dogu, baina plan honek hiru urte ditu.

Udalean hau aukera polita zala ikusi eben eta oso zabalik egon ziran. Horrek erraztu eban dana eta hiru eguneko egitaraua prestatu genduan.

Lehenengoa helduentzako saio bat izan zan, dana umeei zuzenduta ez egoteko. Magia ez da bakarrik umeentzako kontu bat. Jardunaldiok benetan parte-har-

tzaileak izateko Arratiako magoak eta kalejireak be sartu genduzan egitarauan. Profesionalak edo magian adituak be egon ziran. Magiaren mundu txikian ez dago apenas neskarik eta neska eskaldun bat topetea kostatu jakun baina topau genduan. Azoka bat be egin genduan, eta Eriz Magoa egon zan bere espektakuluagaz.

Walas Magoa (Iker Urtiaga), Run Run Magoa (Iosu Murgia) eta Aratz (Aratz Zabala). Niretzat sorpresea izan da Arratian hiru mago dagozala jakitea.


Mago deitzea asko da. Nik ez dot neure burua magotzat ikusten. Ni olgetan ibiltzen naz magiagaz eta suposatzen dot losuk eta Aratzek be gauza bera egingo dabela. Gu hasi egin gara hau praktiketan, baina edonork egin daike, gus-tukoa badau.

Ze motatako trukuak egiten dozuez?

Aratzek egiten ditu danak kartakaz, losuk bolak, kartak... eta nik apur bat danerik. Eguneroko gauzakaz be egiten dogu magia, ez bakarrik berenberegi magiarako erositakoakaz. Dana ez da erostea. Etxeko gauzakaz be egin ahal dozu magia. Ni saiatzen naz biak tartekatzen.

Zelan eta zergaitik hasi ziran magian?

Ba ni Antxo eta Pantxa bikoteko pailazoak nazanez, ikuskizunetan



magia sartzean hasi nintzan, beti be egunerokosatuneko gauzakaz. Malabareak, jantza... gauza piloa sartzen dogu antzezlanetan. Orduan magiagaz olgetan hasi nintzan eta gustatu jatan. Asko ikasi dot neure kontura. Bilbon egon da eskola bat urte askoan, baina oin ez dago.

Komentau dozu edade guztietako jentearentzat egiten dozuela magia, ez bakarrik umeentzat.

Hasikera baten, gure planteamentua betikoa zan: eskolara

eroatea. Baina nik esan neban gurago nebala plazara eta erresidientziatara eroan. Hau da, goiz baten zahar etxeetara joan eta hurreko magia egin. Baina berba egin genduan zahar etxeetako hezitzaileakaz eta ez ebela ikusten esan euskuen. Magia dala gauza bat egon behar zarana oso adi eta horrek zailtasun handiak sortuko ebazala. Domekako saiorako leku batzuk gorde geuntsezan eta hezitzaileek ebatzitatekoek izan eben aukerea. Gu prest genduzan saioa egoitzan egiteko.

Zelango erantzuna izan eban Dimagiak publikoaren aldetik?

Oso ona. Jente asko etorri zan. Lagunak, kuadrillakoak, familia... Izugarria! Eta nik beti daukat sensazioa trukua harrapauko dabela. Iosuren (Run Run Magoa) esanetan magian ez dago errore-marginarik. Trukua ikusten da edo ez da ikusten. Pailazo lanetan, hanka sartu ezker, hurrengo esaldiagaz konpondu zeinke, baina magian ez. Trukua ikusten bada, onartzea eta barre egitea besterik ez dago. Nik uste dot hori dala bidea.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

MENDIA

Euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketea ikusgai dago Igorren

Erredakzioa

Euskal Mendizaletasunaren Museoak eta Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urri bigarrenaren 17tik zementziaren 4ra arte, euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketea egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Erakusketeak, XX. mende hasieratik gaur arteko euskal mendizaletasunaren mugariak dakar zogora 22 paneletan. Mendi garaieneko euskal mendizaleen lehenengo barri eta lehenengo taldeen sorreratik, himalaisten neguko erronka edo mendi lasterketetara heldu arte, mende bat

baino gehiagoko historia jasoten dau *Mendian gora* erakusketeak.



ERRUGBIA

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldeak ligako hirugarren partidua irabazi eban Irunen

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 15ean Zaisa Txingudi taldearen kontra etxetik kanpo jokaturako hirugarren jardunaldiko partidua 12-19 irabazi eban Arratiako taldeak. Arratiarren entsegu guztiak heldu ziran lehen zatian eta 0-19 ipini ziran aurretik. Irungoen tantuak partiduko atzen 5 minutuetan heldu ziran. Pozik agertu zan Ekaitz Duñabeitia entrenatzailea eta arratiarrak jente gixigaz joan zirala partidura eta amaieran hori igarri zala adierazo eban.

Gaztedi taldearen kontra hasi eban ligea Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak errugbi taldeak 2022-2023 denporaldia Euskal Ligako Bigarren Mailan hilaren

1ean, partidua ha 27-10 galdu eban arratiarrek. Galdu arren partidua balorazio "positiboa" egin eban Duñabeitiak. Hurrengo partidua Igorreko San Txisme zelaian jokatu eban Arratiako taldeak hilaren 8an Zarautz Beltzak taldearen kontra, eta 10-18 galdu eban zekorrek. Partidua irabazten hasi ziran etxekoak, baina buelta emon eutsan kanpoko taldeak. "Lesino batzuk daukaguz, jente faltea, gauzak hobetuteko, baina apurka-apurka joango gara hobetuten" adierazo eban Duñabeitiak partidua ostean.

Datorren partidua San Txismen jokatu dabe Iruña R.C. taldearen kontra, hilaren atzen aste-goieneko zapatu arrastian.



Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldekoak Irunen.

PELOTEA

Aldaik eta Mendizabalek ezin izan eban Hiru Hiriburuak Txapelketako txapela jantzi

Erredakzioa

Donostiako Atano III pelotalekuan jokatu zan finala urri bigarrenaren 16an. Olatz Arrizabalagak eta Andrea Capellanek 15-22 irabazi eutsen Amaia Aldai eta Nora Mendizabaleri, txapela lortuz.

Partidu gogorra izan zan eta maila handia erakutsi eban lau pelotariak. Hasieratik ipini ziran aurrean urdinak, eta dimoztarrek eta andoaindarrak ezin izan eutsien buelta emon burrukan gogor egin arren. "Nik uste dot kriston partidua egin dabela euren, gu baino gehiago izan dira eta gu saiatu eta saiatu arren, irabazi egin dabe" adierazo eutsan Aldaik ETBri finaleko partidua amaitu



barritan. Ha-ta guzti be, egindako lanagaz danak "harro egon dai-

tekezala" gehitu eban Dimako pelotariak.

MOTORRAK

Moto-kros MX65ko Euskadiko txapelduna izan da Lander Gorospe dimoztarra

Erredakzioa

Hamar urteko Lander Gorospe, alebin mailako Moto-kros MX65ko Euskadiko txapelduna da, txapelketako lasterketa guztiak irabazi ondoren.

Txapelketeaz gainera, hainbat lasterketatan be hartu dau parte Gorospek, sano emoitza onakaz. Atzena, urri bigarrenaren 9an,

Guarnizon (Kantabria) jokaturakoa izan zan, eta hau be irabazi egin eban. Hori dala-ta, bere aita Pedro Gorospek BEGITURI adierazotakoaren arabera, datorren urtean Espainiako Txapelketea jokatzeko asmoa daukie eta, proba moduan, hilaren 30ean, La Bañezan (Leon) jokatu dan lasterketan parte hartzeakoa da moto-krosleri gaztea.



TAEKWONDOA

Brontzea lortu dau Lisette Cintadok Europako Gazteen Taekwondo Txapelketan

Erredakzioa

Europako Gazteen Taekwondo Txapelketan lortu eban brontzeko domina Lisette Cintadok. Urri bigarrenaren 6 eta 7an jokatu eban txapelketea Rigan, Letonia.

Zeberioztarraren lehen Europa mailako txapelketea izan da eta sano gustura agertu da egindako lanagaz. Espainiako selekzioagaz jokatzan dauan lehen aldia be izan dala azaldu deutso BEGITURI.

Zeberioztarrak hiru burruka egin ebazan eta finalerdietan amaitu zan bere bidea. "Junior denporaldia itxeko modu itzela izan da", azpimarratu dau kirolariak. Europako domina bategaz bueltau da Cintado Zeberiora.



MENDIA

Areatzan izango da Arratia-Ubide-Zeberio-Otxandioko XXI. Mendizale Eguna

Urri bigarrenaren 23an, goizeko 09:00etan, Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberio mendi taldeetako partaideak, alkartuko dira Areatzako plazan, 15 kilometroko ibilbidea egiteko. Joko Alai, Ganzabal, Arginatx, Mirugain, Austarri, Amexier eta Lamino mendi taldeetakoak, hain zuzen be, batuko dira Mendizale Eguna ospatuteko.

Erredakzioa

Urtean-urtean mendi talde batek antolatuten dau eta aurten, Areatzako Lamino mendi taldearen txandea da.

Ibilbideari urtekerea, bolandera bategaz emongo jako. "Laminok, azkenaldian bultzaten dabilan toponimiari garrantzia emongo jako ibilaldian. Arratiako jentea etortea espero danez, Areatza inguruko toponimia erakustea garrantzitsua ikusten dogu. 15 kilometroko ibilbide honetan, 40 kartel edo ipiniko doguz. Honetaz aparte, inoz erabili bako pista bi zapalduko doguz. Urri lehenengoan zabaldu genduzan Areatzako mendi marrazako eta barrio erabiliko doguz" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga Lamino Kirol Klubeko presi-

denteak. Martxearen erdikaldean, Kerexekoatxa eta Potin Potingo iturrien bitartean, horniketa puntu bat ipiniko dabe. Martxearen amaieran, plazan, parrilladea egongo da partaide guztientzat.

Urtean zehar, mendi talde bakoetak bere ekintzak egiten ditu, eta bakoetara bere aldetik ibiliten da. Baina mendizale egunean, mendi taldeak alkartu eta eguna alkarrengaz pasetan dabe. "Egun polita izaten da" dino Iturriagak.

Izena mendi taldean emon

Mendizale egunerako izen-emotea, herri bakoetako mendi taldean egingo da; hau da, Areatzan, Lamino Kirol Klubean; Arantazun, Arginatxen; Lemoan, Ganzabalen; Ubiden, Amexierren; Zeanurin Joko Alain eta Zeberion, Austarrin.



MENDIA

Irabazlearengandik 16 segundotara amaitu eban Onditz Iturbek Gorbeia Suzien Skymasters lasterketea

Onditz Iturbe mendi lasterkari igorretarrak lasterketa ikaragarri ona egin eban Zeanurin.

Erredakzioa

Hasikeratik lasterketa buruan jarri zan. Marcela Vasinovak eta Noemie Vachonek hurretik jarraituten eutsien eta parean ailegau ziran atzen igoyerara igorretarra eta frantziarra. Atzenean, 16 segundoko aldeagaz irabazi eutsan Iturberri lasterketea Vachonek. Lindsay Websterrek osotu eban podiuma, Skyrunner World Series Txapelketea be irabazi eta Oihana Azkorbebeitia izan zan bigarrena Munduko Kopako sailkapenean.

Onditz Iturbek lasterketearen hasikeratik amaierara arte egin eban burrukan karrera irabazteko. "Atzen kilometroetan piketxoak izan dot irabazi dauanagaz, harra-pau nau beherakoan eta aurrea hartu deusta. Baina hor esan dot, amorerik ez noa emoten eta amaierara arte saiatuko naz daukadana emoten eta joan naz aldea laburtzen. Atzenean 14 edo 16 segundo atera deustaz. Baina pozik. Bigarrena izanda, irabazi izan baneu besteko poza daukat" adierazo eutsan BEGITURI Onditz Iturbek lasterketa egunean.

Gizonezkoetan, Nico Molina izan zan Skyrunner World Series Munduko Txapelketako finaleko irabazlea. Bernard Cheruiyot keniarra izan zan lasterketa burua Aldaminera, 20. kilometroan, heldu arte, baina jatsieran Molinak hartu eutsan aurrea. Helmugan, Loic Robert izan zan bigarren eta hirugarren Cheruiyot. Aitatu behar da be lider egoan Damien Humbertek laugarren amaitu ebala karrera eta bigarren geratu zala Munduko Txapelketan. Ander Iñarra izan zan gizonezkoetan lehenengo euskal-

duna, helmugan bosgarren sartu zana. Horregaz, hirugarren postua lortu eban Skyrunner World Series 2022an; hau da, Munduko Kopan.

Lasterketa honek ebatzi eban Munduko Txapelketea, 11 herrialdeetan 12 lasterketa jokatu ondoren. Denporaldian zehar sailkatutako lasterkariak baino ezin eben parte hartu. 57 izan ziran Gorbeia Suzien Skymastersa jokatu ebenak.

Gorbeia Suzien Skyrace, Gorbeia Suzien 21K eta Euskal Herriko Gazteen Txapelketea

Bezperan eta goizaldeko euriek eragindako lupetzek, behelainoak eta haizeak, gogorrako egin eben berez gogorra dan Gorbeia Suzien lasterketea eta aurten, barrikuntza moduan, Lekandara igoerea be egon da ibilbidean.

Alain Santamaria eta Andrea Garay izan ziran Gorbeia Suzien Skyrace, 32 kilometroko lasterketa irabazleak. Gizonezkoetan, Iñaki Olanok eta Marc Ollek osotu eben podiuma. Andrazkoetan barriz, Uxo Irigoyenek eta Claudia Bosch-ek.

Gorbeia Suzien Merrell 21 kilometroko lasterketea Ibai Larreak eta Laia Montoyak irabazi eben eta Euskal Herriko Junior Txapelketea Ibai Larreak eta Jone Fuentes.

Boluntario, herritar, erakunde eta lasterketarien babes

Egun eta gau horretan Zeanurin bizi izandakoaren gainean, sano balorazio positiboa egiten dabe antolakuntzakoek. "Sano pozik gagoz, astegoiena oso ondo urten da, korrikalariak poz-pozik gelditu dira. Zapatuan eguzkirik ez eban egin baina horrek enkantua emon

eutsan lasterketeari. Azken finean, Euskal Herriko mendiak horreek dira, lainoagaz be bai eta enkantua euki dau horrek be" azaldu deutso Jurek Ziemkiewicz antolakuntzakoak BEGITURI. Gainera ez zan ezbehar larrik egon. Arrastiko ekintzak be ondo joan zirala eta gauean jai eder bat egon zala adierazo dau Ziemkiewicz. "Lehenengo egunetan heldu jakuzan eretxi, komentario eta kritikek gure sensazio onak konfirmatu deuskuez. Boluntarioen, herritarren eta erakundeen babesak igarri dogu beste urte batez eta horrek hurrengo edizino bateri ekiteko animoak emoten deuskuz. Urtean-urtean barrikuntzak gehituz goaz, horrek eragiten dauan bertigo puntuagaz baina boluntarioen, herritarren, erakundeen eta korrikalarien babesak aurrera egitera animetan gaitu".

Gorbeia Suzien Merrell Skymasters

Gizonezkoak

Nicolas Molina 3:08:26.
Loic Robert 3:11:39.
Bernard Cheruiyot 3:14:56.
Andrazkoak
Noémie Vachon 3:49:37.
Onditz Iturbe 3:49:53.
Lindsay Webster 3:51:26.

Gorbeia Suzien Merrell Skyrace

Gizonezkoak

Alain Santamaria 3:08:54.
Iñaki Olano 3:15:41.
Marc Olle 3:16:58.
Andrazkoak
Andrea Garay 4:20:06.
Uxo Irigoyen 4:28:10.
Claudia Bosch 4:42:30.

Gorbeia Suzien Merrell 21K

Gizonezkoak

Ibai Larrea 1:54:10.
Jon Durana 2:03:56.
Ibai Cebrian 2:04:20.
Andrazkoak
Laia Montoya 2:23:58.
Jone Fuente 2:36:44.
Maria Ezpeleta 2:40:34.

Euskal Herriko Gazteen Txapelketea (Junior)

Gizonezkoak

Ibai Larrea 1:54:10.
Ibai Cebrian 2:04:20.
Jon Baz 2:06:02.
Andrazkoak
Jone Fuente 2:36:44.
Irene Iturria 2:50:15.
Izaro Eguibar 3:03:43.



Nico Molina. Argazkia: Zazu Fotografia.

IPUINA

Ogi erdia eta liburu bat helduentzako ipuin kontaketea Igorreko liburutegian**Erredakzioa**

Ines Bengoa ipuin kontalariak eta Josu Lizarraga musikariak eskainiko dabe *Ogi erdia eta liburu bat* helduentzako ipuin kontaketea urri bigarrenaren 21ean, 19:00etan, Igorreko liburutegian.

Kontaketa honetan, literatura ahozkoa zanetik gaur egunera arteko kontakizunak ekarriko ditu Bengoak; Sherezade, Emilia Pardo Bazan, Hector Gomez Navarro edo Sorche Nic Leodhasenak, tartean. Sasoi, giro eta genero desbardineta kontakizunek osotuten dabe emonaldia. 16 urtetik gorakoentzat gomen-

datuta dago. Saioa elebitan izango da, euskeraz eta gaztelaniaz.



LEHIAKETA

Hilaren 31n amaituko da Lemoako XI. Argazki Lehiaketara lanak bialtzeko epea**Erredakzioa**

Argazkien gaia Lemoa da eta lehiaketaren helburua, argazkintzea bultzatzeaz gainera, 2023ko Udaleko egutegirako argazkiak aukeratzea da. Hamabi argazki aukeratu dira eta aukeratu-takoak egutegian argitaratu dira eta opari bana izango dabe. Sariak abenduan bananduko dira.

Edonork hartu ahal dau parte lehiaketan. Partaide bakotzak argazki bakarra aurkeztu leike formatu horizontalean, kultura@lemoa.net helbidean. Bialdutako emailean, egilearen izen-abizenak, helbidea, te-

lefono zenbakia eta argazkia ateratuko lekua eta data ipini behar dira.



MUSIKEA

Euskal Herriko eta Latinoamerikako erritmoak Bediako Liburutegian**Erredakzioa**

Celeste Aguero eta Garazi Basterretxeak *La encendida* emonaldi poetiko musikala eskainiko dabe urri bigarrenaren 19an, 18:00etan, Bediako liburutegian.

La encendida Euskal Herriko eta Latinoamerikako erritmoak, doinuak eta berbak batzean ditu. Proiektuaren helburua da, batzean gaituan ozeanoaren alde bietako abestien

eta poemen bidez, leku horreetako garai askotako ahotsak, burrukak eta ametsak konpartidutea.

Poemak irakurriko ditu Aguerok *cuatro venezolano* dalako musika tresneagaz lagunduta eta Basterretxeak perkusinoa joko dau.

Emonaldian une lasaiak egongo dira, poesia xuxurlatuaren eta arpegioren bidez, eta jantzan egitekoak be bai, kumbia eta txakarera erritmokoak.

ONDAREA

Dima eta Zeberioko museoetara bisitak dagoz hileon ondarea ezetuteko

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Arratian hiru ekintza prestatu dabez. Lehenengoa urri bigarrenaren 15ean izan zan; Areatzako Parketxeak antolatuta Otzarretatik ibilaldia pago motzak ezetuteko, hain zuzen be.

Erredakzioa

Beste biak, hilaren bigarren hamabostaldi honetan izango dira; biak ondarea gordeten daben museo tematikoetan. Bata, Dimako Antzasti baserri eta etxe modernoaren museoan, eta bestea Zeberion, errementarien museoan. Hilaren 22an eta 29an izango dira ekintzok, hurrengo hurrengo.

Antzasti Museoak eta Udalak, *Dima 5 zentzumenekin* izeneko tailerra antolatu dabe hilaren 22rako. Esperimentazioan oinarrituko da tailerra eta bost zentzumenakaz jolastuko dira partaideak Dimako ondarearen balioa gozatzeko. Herriko profesional eta artistek sortutako ikusentzunezkoak erabiliko ditue eta bertoko ekizlearen janari-edariak dastatuko dabez. Tailerra, Antzasti museoan izango da 11:30ean eta izena harrera.dima@bizkaia.org helbidean edo 94 631 57 25

telefonoan emon behar da.

Gorbeialdek antolatu dau Zeberioko Errementari Museora bisitea. Errementariak, burdin ekoizpenak eskatzen ebazan produktu desbardineta (barrak, lanabesak...) espezializauta

egozan eta euren bizimodua eta errealitatea ulertuten lagunduten dau museoak. Urri bigarrenaren 29an, 11:00etan hasiko da bisitea. Izena turismo@gorbeialdea.com helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan emon daiteke.



Antzasti Museoa.

IKUSKIZUNA

Oroitzen hondarrak nota txikietan ikuskizunaren emonaldia Igorren**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 22an, 20:00etan izango da Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen ama* poema liburuan oinarritutako *Oroitzen hondarrak nota txikietan* emonaldi poetiko-musikala Lasarte Aretan. Pianoa, Izaskun del Cerrok joko dau; kantuan, Nerea Zuloaga billaroztarrak jardungo dau eta poemak, Mikel Etxaburu egileak errezitauko ditu. Irudiak, Yera Sanchezenak dira. Piano soinuak, kantuz, irudiz, poema errezitaldiz eta argiztapen giro intimoagaz osotutako ordubeteko emonaldia da.

Ama bizitzaren atzen fasean sartzera hasi zan idazten liburua Etxaburu. Esperantzea emoteko kantu bat da obrea. Izan be, amaren azken bidaia horretako bidelaguntasuna gorpuztu gura izan eban Etxaburuk poe-



makaz, bere erara. Amari kante-tan deutso liburuan eta ikuskizunetan, eta eskutik heltzeako modu bat dala dino egileak, egoera bardiantsuan dagozan ama eta aita danentzako egindakoa.

Etxaburuk beste hiru poema

liburu be baditu: *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011), *Hodeiak zapatatetan* (Susa, 2014) eta *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016). Atzen honek, Blas de Otero-Bilbo Uria nazinoarteko saria jaso eban.

JANTZEA

Ur bizitan ekonomia jasangarriaren aldeko alegoria bat

Urri bigarrenaren 29an, 20:00etan, Haatik Dantza Konpainiak *Ur bizitan* antzerki eta jantza ikuskizuna ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora.

Erredakzioa

Aiert Beobiderena da koreografia; Koldo Izagirreren gidioa eta Pascal Gaignerena musika. Irati Sorondo, Jon Arsuaga, Amaiur Luluaga, Libe Sukia, Iñigo Etxeberria, Nagore Zabala eta Leire Romero dira jantzariak.

Antzerki eta jantza ikuskizun hau, modu jasangarri baten bizi-teko aukeraz diharduen gogoeta bat da. Ez da ekintza huts eta anekdotikoetan oinarritzen dan lana; jaki, jantzi edo konsumo beharrei begira bakarrik, bizi-tza beraren oinarri eta garapenari be begiratzen deusana baino.

"Gizaki eta natura baliabideen arteko alkar ulertze zintzo baten beharrea kokatzen dan alegoria bat da. Eta zoritxarrez horren ohituak gagozan arren, natura gizakiaren beharretara moldatzeko joerearen ondorioak agerian itxi gura dira" dino sinopsiak.

Haatik Dantza Konpainia

2011n sortu zan Gipuzkoan eta 2012an egin zan ezaguna *Erri-mak oinetan* bertsolaritza eta jantzea batzean ebazan ikuskizunagaz. Konpainiaren beste ikuskizun ezagun batzuk, *Ilargiaren malkoa* edo *Hormek diote* dira.

LIBURUA

Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez Arteako Irakurleen Txokoan izango dira



Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 28an, 19:00etan, Arteako Irakurleen Txokoko partaideek Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez *M ama**, *eme**, *ume** liburuaren egileakaz izango dira liburu komentetako. Aurreko egunean, 18:30ean, liburuaren aurkezpena egingo dabe idazleek Kafrangakek antolatuta. Hitzordu biak Arteako Kultur Etxean izango dira.

Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek feminismotik eta amatasunetik pentsau eta gau-

zatu dabe liburu hau, hamahiru lekukotasun jasoz. Hamaika ama eta aita biren testigantza bana jasoten dira: bikotedunak eta bikotebakoak, heterosexualak eta homosexualak, amabakarrak, adoptatzaileak, ama ez izatea ebatzi dabenak... Askotarikoak dira esperientziak eta bizipenak, ugariak eretxiak eta desbardinak mundu ikuskerak. Amentzat, eta ama izan ez diran andrazkoentzat (euren ebatziz edo ezinez) eta gaiagaz sensibilizauta dagozan gizonezkoentzat da liburu.

LITERATUREA

Literatura feminista tailerra Alaine Agirreren *Karena* eleberriagaz hasiko da Zeanurin

Erredakzioa

Mazala Andra Taldeak antolatuten dauan literatura feminista tailerra urri bigarrenaren 28an, 18:30ean, Zeanuriko Kultur Etxean izango dau 2022-2023 ikasturteko lehenengo saioa. Partaideek Alaine Agirreren *Karena* liburuaren kritika feministea egingo dabe, egileagaz batera.

Karena liburuan, Alaine Agirrek amatasunagaz lotutako hainbat gai, normalean ostonduta geratzen diranak dakar agerira: Lagundutako Ugalketa teknikak, horreen ondorio fisiko eta psikologikoak, bikoteko batek guraso izateko besteak baino gogo gehiago daukanean sortzean diran arrakalak, amarenganako errespetu bako erditzeak, gura bako abortuak eta horren doluak, hain zuzen be.

Sara Mendizabal protagonis-tearen ibilbidea, lirismoz eta musikalidadez kontetan dau Agirrek, minetik edertasuna sortuz eta gorputzaren barrutik uniberso oso bat eregiz.


DUNBA

Teknologia barriak Zulaibarren

Borja Aldekoa

Zulaibarren eraikineko hobekuntzez gainera, teknologia eta material barri onenak bereganatu dira Campus Zulaibar barria sortzeako.

Menpekotasun egoeran dagozan personei arreta egiteko teknikari eta gizarteratzeko teknikari ikasketak jasoten dabiz ikasleek erabiliko dabiz gizarte eta kultura zerbitzuen tailerra bitan banatuko da: alde batetik, egokitutako etxebizitza bat izango da, eta bestetik, askotariko tailerra. Egokitutako etxebizitzan, sabaiko garabia eta bestelako garabiak, domotikadun gailuak, egokitutako motordun altzariak, egokitutako komuna eta hainbat laguntza tekniko izango dira. Askotariko tailerren barriz, material



sensoriala, arbel magnetikoa eta telebista interaktiboa izango doguz, bestak beste. Seguru asko errealidade birtualeko betaurre-

koak be erabilgarri izango dira.

Elektrizidadea eta Elektronika arloko ikasketak egiten dabiz ikasleei jagokienez, material

onenagaz lan egiteko asmoz, departamentu elektrikoak gaur egun pil-pilean dagoan teknologia gehitu dau euren instalazioetan. Alde batetik, 4.0 industria osatzen dauan teknologiak: beso robotikoak, Smart factory, IOT teknologiak eta automata eta sensorizazioa. Eta bestalde, oin arte zentroan lantzean ziran teknologiak sendotzen dituen materialak: domotikarako ekipamentu aurreratuak, pneumatika eta elektropneumatika lantzean dituen panelak eta hidraulika simulatzaileak.

Arlo mekanikoan barriz, mekanizatorako ondorengo makina barriak eskuratu dira: mekanizatorako 5 ardatzeko mekanizazio zentro bat eta erreminta motorizaua daukan tornu bat. Galdaragintza finerako ordea, 3 tolesteko makina eta plasma bidezko ebaketak egiteko makina.



Atzenik, Diseinu arloan, tailerretarako plastikozko 3D inprimagailuak eta inprimagailu metaliko barri bat erosi dira.

Teknologia honek guztiak geureganatuta, gure ikasleak lan mundura ahalik eta ondoen prestatuta helduko dira. Gainera, helburua inguruko enpresen beharrianak betetea denez, teknologia barri guztiak enpresen esku be egongo dira.

AGENDA

**URRI BIGARRENAK 17
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Abenduaren 2ra arte, bialdu daitezke argazkiak Arantzazuko Argazki Lehiaketan parte hartzeako *idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org* helbidera.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arigune lez jarduteko, alkarte, establezimentu edo entidadeek, Euskaraldian parte hartzeako izen-emotea zabalik hilaren 30era arte *www.euskaraldia.eus* webgunean.

Zemendiaren 11ra arte, Beldur Barik Lehiaketara bideoak bialtzeko epea. *www.beldurbarik.eus*.

Berbalagunen parte hartzeako izena emon daiteke *arratia_berbalagun@gek.eus* helbidean, 662 199 033 telefonoan edo Igorreko Kubulu Euskaltegian bertan.

Euskaraldian ahobizi edo belarriprest moduan izena emoteko epea zabalik Euskaraldiaren webgunean.

ARTEA

Hilaren 21era arte, herritarrak ekarpenak egin leikiez 2023ko aurrekontuetarako posta elektronikoz, telefonoz edo udaletxean bertan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, San Martin eguneko bazkarirako (zemendiak 12) izen-emotea liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

Hilaren 31ra arte, 2023ko aurrekontu parte-hartzaileetan parte hartzeako epea. Moduak: online formularioa betez, *harrera.dima@bizkaia.org* helbidera idatziz, 685 759 997 telefonoan edo udaletxeko buzoian formularioa itxiz.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Hilaren 31ra arte, AEKn euskera ikasteko Igorreko guraso taldeetan izen-emotea. Maila eta ordutegi guztiak.

Zemendiaren 4ra arte, *Mendian gora* euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Urri bigarrenaren 19ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen Argazki

Lehiaketea.

Zemendiaren 20an jokatuko dan Lemoatx Trail lasterketearen seigarren edizioan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik *https://inscripciones.kronoak.com* webgunean.

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, ibilaldi gidatuak helduentzat Gudarien parketik urtenda. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

11:00etatik 13:30era, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazio zerbitzua Arraibin.

Hilaren 31ra arte, Lemoako XI. Argazki Lehiaketarako argazkiak *kultura@lemao.net* helbidera bialdu daitezke.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak ezetuteko aukerea. Informazio gehiago 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus* helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegiz sortutako espazioan ipini.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etatik 19:00etara, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, astelehenetan jantza karibearrak eskola barrian.

**URRI BIGARRENAK 19
AREATZA**

09:00etan, Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta Muskiz eta Arboledara txangoa; 10:30ean, bisita gidatua El Pobalen eta

ondoren baba jana.

BEDIA

18:00etan, *La encendida* Celeste Aguero eta Garazi Basterretxearen emonaldia poetiko-musikala, Euskal Herriko eta Latinoamerikako erritmoak, doinuak eta berbak batzean dituan, liburutegian.

DIMA

18:00etatik 21:00etara, Andraizeak antolatuta, *Sukaldaritza osasuntsua* ikastaroa Txaramela Koop. Elkartearen eskutik.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Igorreko andra eta gizonen arteko bardintasan egoerearen diagnostikorako eztabaida taldea Kultur Etxean. Gaia: Feminismoa, kirola, euskera, giza eskubideak eta kultura.

LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikorako orientazio zerbitzua Arraibin.

16:30etik 17:15era, eguaztenetan, Gazteak Aktibo, 1. eta 2. DBHko ikasleentzako kirol jarduerak kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

17:30etik 18:30era, eguaztenetan Gimnasia gidatua hirugarren adinarentzat kiroldegian. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

**URRI BIGARRENAK 20
LEMOA**

17:30etik 20:00etara, *Perretxikoak ezetu, batu eta jateko prestatu* tailerreko saioa Kulturugunean. Ilgoran Jabekuntza Eskolea.

**URRI BIGARRENAK 21
ARTEA**

19:30ean, 12 eta 17 urte bitarteko gazte eta gurasoen batzarra mataderoan.

IGORRE

19:00etan, Ines Bengoaren *Ogi erdia eta liburu bat* helduentzako ipuin kontaketea liburutegian.

**Demode Quartet-ek Epa Txiki!
umorezko ikuskizun musikala
dakar Lemoara**

Urri bigarrenaren 22an, 18:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, Demode Quartet taldeak *Epa Txiki!* umorezko ikuskizun musikala eskainiko dau.

Hasikera baten *Epa!* izeneko emonaldia eskaintzen eben eta honek etxeko txikienei be barregurea emoten eutsiela ikusita *Epa Txiki!* umeei zuzendutakoa prestatzea pentsau eben. 50 minutu irauten dituan ikuskizun honetan koreografia, umorea eta euskal musikako klasikoak bersinoak eskainiko ditue. Umeentzat sortutako ikuskizuna bada be, helduentzako hainbat kinu ditu.

ZEBERIO

18:15etik 19:15era, barikuetan, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, jantza plaza frontoian.

**URRI BIGARRENAK 22
BEDIA**

08:30ean, Luis Cañas Bodegara txangoa.

DIMA

11:30ean, Udalak eta Antzasti Museoa antolatuta, *Dima 5 zentzumekin* tailerra Antzasti Museoa. Izena alde aurretik emon *harrera.dima@bizkaia.org* helbidean edo 94 631 57 25 telefonoan.

IGORRE

11:45ean, 18-30 urte bitartekoentzako Martinez Lacuesta bodegara urtekerea Maratu Gazte Zerbitzuak antolatuta.

20:00etan, Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen ama* poema liburuan oinarritutako *Oroitzen hondarrak nota txikietan* emonaldia poetiko-musikala Lasarte Aretoa. Pianoan, Izaskun del Cerro; kantuan, Nerea Zuloaga; poemak errezeitetan, Mikel Etxaburu; irudiak, Yera Sanchez.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen umeentzako jarduerak. Albertia (867 m).

ZEBERIO

12:00etan, Telleriko Pump Track-aren inaugurazioa jaia.

**URRI BIGARRENAK 23
AREATZA**

09:00etan, plazan. Arratia-Otxandio-Ubide-Zeberio XXI. Mendizaleen Eguna.

ARTEA

13:00etan, La Baldosa Flotanteren kontzertua. Munduko musikea - Juglaren Kosmiko. Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *DC Supermaskoten liga*; 19:30ean, *El vasco* Lasarte Aretoa.

**URRI BIGARRENAK 24
ZEBERIO**

18:00etatik 19:00etara, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, astelehenetan jantza karibearrak eskola barrian.

**URRI BIGARRENAK 26
DIMA**

18:00etatik 21:00etara, Andraizeak antolatuta, *Sukaldaritza osasuntsua* ikastaroa Txaramela Koop. Elkartearen eskutik.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, *Pipi Kaltzaluzeen tribua* ikastaroko saioa Kultur Etxean. Ilgoran Jabekuntza Eskolea.

18:00etatik 20:00etara, Igorreko andra eta gizonen arteko bardintasan egoerearen diagnostikorako eztabaida taldea Kultur Etxean. Guraso, jubiladu, gazte, zaintzaile, andra, genero disidente, migrautako personentzat... deialdia.

LEMOA

18:00etan, Amaia Fernandez *Ipuin kuttunak* 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 27
ARTEA**

18:30ean, Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez *M ama**, *eme**, *ume** liburua aurkezteko egileen eskutik Kultur Etxean. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, eskaerea hilaren 24a baino lehen egin behar da 655 709 771 telefono zenbakian. Kafrangakek

antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Berbalagun aurkezpen ekitaldia Lasarte Aretoa.

LEMOA

17:30etik 20:00etara, *Perretxikoak ezetu, batu eta jateko prestatu* tailerreko saioa Kulturugunean. Ilgoran Jabekuntza Eskolea.

**URRI BIGARRENAK 28
ARTEA**

19:00etan, Irakurleen txokoa, *M ama**, *eme**, *ume** Erika Lagoma eta Estitxu Fernandezegaz Kultur Etxean.

BEDIA

18:30ean, arimen gaua liburutegian.

IGORRE

Arimen Gaua.

1980ko hamarkadako mozorro gaua. Retro party 80s Axular Herriko Tabernan.

ZEANURI

18:30ean, literatura feminista tailerra Alaine Agirrerren *Karena* liburua azterketa egileagaz. Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:15etik 19:15era, barikuetan, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, jantza plaza frontoian.

**URRI BIGARRENAK 29
ARANTZAZU**

09:00etan, Arginatx Mendi Elkarteak antolatuta perretxiko bilketea.

ARTEA

18:30ean, Arteako Mikel Deuna Jubilatuen Elkarteak antolatuta, taloa egiten ikasteko tailerra. Tailerrean egindako taloak urdaigaz jango dira eta ondoren, txokolata edateko aukerea egongo da. Plazan.

IGORRE

20:00etan, Haatik Dantza Konpainiaren *Ur bizitza* antzerki eta jantza ikuskizuna Lasarte Aretoa.

LEMOA

Zemendiaren 1era arte, Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Aururia (1.921 m); Cabezo de Guara (1.870 m)-Tozal de Cubilas (1.938 m); Canciás (1.929 m)-Punta Gradatiello (1.927 m); Pico de la Lera (2.132 m)-Bacun (2.191 m).

XXIII. urteurreneko jaia Karabie Gaztetxean. 12:00etan, txupina; 12:30ean, *Izan zirelako gara* barriketaldia; 13:30ean, poteo musikatua; 15:00etan, bazkaria; bazkalostean olinpiadak herritik; 23:00etan, kontzertuak: Arratians eta Very Txarrak.

ZEBERIO

11:00etan, Errementari Museora bisita gidatua. Izena alde aurretik *turismo@gorbeialdea.com* helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan emon.

**URRI BIGARRENAK 30
AREATZA**

11:00etatik 13:00etara, *Andra etorkinen artean sareak sortzeako tailerrak* saioa Gaztelekuan.

IGORRE


17:00etan, zinea, *Minions: el origen de Gru*; 19:30ean, *El acusado* Lasarte Aretoa.

**URRI BIGARRENAK 31
ZEBERIO**

18:00etatik 19:00etara, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, astelehenetan jantza karibearrak eskola barrian.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunak jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonon.

SALTZEAN DOT

Egurra landutako tornoa salgai, Lombarte markakoa eta kopiadoreagaz osotuta. 150 euro. Interesdunek deitu telefono honetara: 657 707 725.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN

DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztiatarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

ETXEA GARBITZEKO LAGUN BILA

Arantzazun astelehen eta eguen goizetan etxea garbitzeko persona baten bila nabil. Lanerako prest egon ezker, telefono honetara idatzi edo deitu: 669 949 471.

KLASE PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI

Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Oroitzen hondarrak nota txikietan ikuskizun poetiko musikalerako.

Begoña Amundarain (Artea)
Axular Kultur Elkartea (Igorre)

Miren Madariaga (Areatza)
Hektor Rodriguez (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
sema
0-16

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sema@sema.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE

ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK

AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA

DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Pinturas Aratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia

Tlf. 94-673-70-87
Tlf. 609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu

eus



ARRATIako UDALen
MANKOMUNITATEA



**ARRATIako UDALen MANKOMUNITATEAK,
HONDAKINAK HOBETO KUDEATUTEKO
KANPAINA BAT MARTXAN IPINIKO DAU**

HELBURU NAGUSIAK:

- Hondakinen prebentzioa sustatzea: *hondakinik onena, sortzean ez dana*
- Hondakin organikoaren bilketa selektiboa bultzatzea: *zaborraren %40 baino gehiago izanik, Arratian bakarrik %2 batzean da*
- Beste hondakin mota guztien bilketa selektiboa handitutea: *hondakin mota bakotxa bere eukiontzira bota ezkeru, dirua aurrezten da eta inguru-mena zaintzen da*
- Gainerako hondakinen zatikiaren kantidadeak murriztea (errefusa): *izatez, hondakinen %20 baino gutxiago da eta Arratian ia %80 suposatzen dau. Bere tratamenduaren kostuak organikoarena bikoztu egiten dau*
- Parte-hartzea sustatzea: *Publiko guztiarentzako jardura desbardinak. Zeuk be parte hartu!*

begitu



**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuota: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.